



ERANSKINA

DIRULAGUNTZEN 2025eko PLAN ESTRATEGIKOA

LEHENDAKARITZA

Dirulaguntzen Araubidea Arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 6.1 artikuluan ezartzen duenez, dirulaguntzen jarduera plan estrategiko baten bidez planifikatu beharko da alde zuzenetik. Plan horretan zehaztu behar da, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betez, zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epean lortu behar diren, zenbateko kostuak aurreikusten diren, zer finantzaketa-iturri dituzten eta, dirulaguntzen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, planaren helburuarekin erlazionaturako ekintzak eta adierazleak zein diren.

Plan estrategikoak programatikoak izango dira, eta haien edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Lau urteko indarraldia izango dute, non eta, barne hartzen dituzten jarduketan izaera dela-eta, epe luzeagoa behar ez den; egoera hori behar bezala arrazoitu beharko da dokumentuan bertan.

Koordinazio eta Gizarte-komunikazioko idazkari nagusiaren 2024ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez, Lehendakartzaren 2024-2027 Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoa onartu zen.

Aipatutako Lehendakartzaren 2024-2027ko Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategiko horrek Euskal Autonomia Erkidegoko 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 21eko 21/2023 Legean jasotako aurreikuspenak jaso zituen. Lau Urteko Planak hartzen dituen hurrengo hiru urteetako bakoitzerako, hau da, 2025erako, 2026rako eta 2027rako, behin dagokion Urteko Aurrekontuen Legea onartu ondoren, urtero onartzen den Dirulaguntzen Plan Estrategikoa erantsiko da.

Lehendakartzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak esleitutako arloetan garatzen du bere jarduera.

Lehendakariaren azaroaren 26ko 388/2024 Dekretuaren bidez onartutako egitura organiko eta funtzionalean ezarritakoaren arabera, Lehendakartzak hiru idazkaritza nagusi hauek egituratzen da: Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen Idazkaritza Nagusia; Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia; eta Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren Idazkaritza Nagusia. Hiru idazkaritza nagusi horietaz gain, Euskadi Berriaren komisionatua ere Lehendakartzaren baitan ezarrita dago.



Ondorio horietarako, hemen 2025eko ekitaldirako Lehendakaritzaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa jorratzen da; lehenik eta behin, adierazi behar da plana programatikoa dela, izaera bereko beste planak bezala; beraz, bere edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta bere eraginkortasuna abian jartzen diren dirulaguntza-ildoek baldintzatzen dute, kontuan hartuta, besteak beste, urte bakoitzean dagoen aurrekontuak eskaintzen dituen aukerak.

Plangintzaren ikuspegitik, kontuan hartu behar da Lehendakaritzari esleitutako jardun eremuen barruan, honako hauek osatzen dutela esparrua: XIII. Legegintzaldiko 2024-2028 Gobernu Programak, Euskadi Basque Country 2025 - Nazioartekotzeko Esparru Estrategiak, 2021-2025 Kanpo Harremanetarako Planak eta 2030 Agendaren Euskal Lehentasunen Programaren baitan kokatzen den 2021-2024 Ekintza Planak.

Plan honetatik kanpo daude diruz lagun daitezkeen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoak eta eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoak –biak ere Lehendakaritzari atxikitako euskal sektore publikoko erakundeak– bideratutako programak; zeintzuek plangintza propioa izango baitute.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legeak jasotzen duenez, Eusko Legebiltzarrak helburu jakin baterako berariaz onartutako dirulaguntza izendunak plangintza honetatik kanpo geratzen dira; horretaz gain, abenduaren 20ko 8/2024 Legearekin bat eginez, dirulaguntza teknikaren bidez, hainbat ekimeni ekiteko baliabideak daude. Diru-baliabide ekonomiko horiekin Lehendakaritzaren 2025eko ekitaldirako Dirulaguntzen Urteko Plana egin da, zeinak aukera ematen baitu dirulaguntza ildo horiek abian jartzeko.



KANPO HARREMANEN ETA EUSKADI GLOBALAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

1.- KANPO HARREMANEN ETA EUSKADI GLOBALAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK (2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANAREkin lotuta, 2025 EUSKADI BASQUE COUNTRY - Nazioartekotzeko Esparru Estrategian integratua)

1.1.- BEKAK

KANPO HARREMANEN ETA EUSKADI GLOBALAREN BEKAK: EUROPAKO GAIEN BEKAK / KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEAREN BEKAK / KANPO HARREMANEN ETA ORGANISMO MULTILATERALEN BEKAK

Europako Gaiak

AURREKONTUA: 25 01 1311 22 451 19/3301 **2025:** 4. kapitulua: 120.000 €. Konpromiso kreditua **2026:** 64.000 €

Kanpoan den Euskal Komunitatea

AURREKONTUA: 25 01 1311 23 451 25/0822 **2025:** 4. kapitulua: 43.000 €. Konpromiso kreditua **2026:** 43.000 €

Kanpo Harremanak eta Organismo Multilateralak

AURREKONTUA: 25 01 1311 21 451 19/3309 **2025:** 4. kapitulua: 90.000 €. Konpromiso kreditua **2026:** 50.000 €

Araua: 12/2019 Dekretua, urtarrilaren 29koa, kanpo harremanen arloan gazteak prestatzeko beka arautzen dituen

Helburua: Adimen lehiakorra eta ezagutza sustatzea nazioartekotzearen arloan

Jarduera: Beren ibilbide profesionala esparru horretan garatzeko ahalmena duten gazteei nazioarteko prestakuntza ematea

Adierazlea: beka kopurua: 14

Prozedura: Norgehiagoka-prozedura

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia

Helburu duten sektorea: Unibertsitate-titulazioa izanik, 28 urte baino gutxiago edukitzea eta bi baldintza hauetako bat betetzea: edo EAEn bizitzea edo aitortutako euskal etxe bati atxikita egotea

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

2. ARDATZA- SARE SOZIOEKONOMIKOAREN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEA

2.3 HELBURU ESTRATEGIKOA- Trantsizio hirukoitzari erantzuteko ezagutza eta gaitasunak erakartzen laguntzea

ILDOA: 2.3.1.- Nazioartekotzearen alorko talentua sustatzea

Jarduera: A) Kanpo harremanen arloko beka eta prestakuntza-praktiken deialdia sustatzea

Adierazlea: Kanpo harremanen arloko beka eta praktika kopurua: 56



1.2.- KANPOKO EUSKAL KOMUNITAAREN KIDEENTZAKO PREMIA LARRIKO DIRULAGUNTZAK

AURREKONTUA: 25 01 1311 23 451 19/3317, 4. kapitulua; **2025:** 212.000 € / FINANTZAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: 222/2003 Dekretua, irailaren 30ekoa, euskal etxeentzako diru-laguntzak arautzen dituena, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko

Helburua: Kanpoan den euskal komunitatea sendotzea

Jarduera: Kanpoan den euskal komunitateko kideei laguntzea

Adierazlea: Egoera larrian dauden familia-unitateentzako laguntzak ematea (laguntza kopurua: 100)

Prozedura: Norgehiagoka-prozedura

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza

Helburu duten sektorea: Euskal gizataldeak

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

5. ARDATZA: EUSKAL KOMUNITATE GLOBALA ERAIKITZEA

5.1 HELBURU ESTRATEGIKOA.- Euskaldunen atzerriko presentzia historikoa sendotzea

ILDOA: 5.1.1.- Euskal etxeen eta euskal gizataldeen sarea sustatzea eta babestea

Jarduera: A) Euskal etxeekin ekitaldiak eta jarduerak antolatzea

Adierazlea: Laguntza-programetako parte-hartzaileak (Planaren indarraldi osoan aurreikusitako laguntza kopurua: 500)

1.3.- EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK (Inbertsioak)

AURREKONTUA: 25 01 1311 23 753 25/0824; 7. kapitulua; **2025:** 45.000 €; Konpromiso-kreditua **2026:** 135.000 €; FINANTZAZIOA: % 100 Eusko Jaurlaritza

Araua: 50/2008 Dekretua, martxoaren 18koa, euskal etxeentzako dirulaguntzak arautzen dituena

Helburua: Kanpoan den euskal komunitatea indartzea

Jarduera: Kanpoan den euskal komunitatea sendotzea euskal etxeen bidez

Adierazlea: Euskal etxeek euskal errealitatea hedatzeko mekanismo gisa duten zeregina indartzeko laguntzak (laguntza kopurua: 10)

Prozedura: Norgehiagoka-prozedura

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza

Helburu duten sektorea: Euskal gizataldeak

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

5. ARDATZA: EUSKAL KOMUNITATE GLOBALA ERAIKITZEA

5.1 HELBURU ESTRATEGIKOA.- Euskaldunen atzerriko presentzia historikoa sendotzea

ILDOA: 5.1.1.- Euskal etxeen eta euskal gizataldeen sarea sustatzea eta babestea

Jarduera: B) Euskal etxeen jarduerari eta azpiegiturari laguntzea

Adierazlea: Lagundutako euskal etxeen jarduera kopurua (adierazle orokorra, Planaren indarraldi osoan lagundutako jarduera kopurua: 3.500)


1.4.- EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK (Jarduerak eta Funtzionamendua)

AURREKONTUA: 25 01 1311 23 452 25/0824; 4. kapitulua; **2025:** 200.000 €; Konpromiso-kreditua **2026:** 600.000 € / FINANTZAZIOA: % 100 Eusko Jaurlaritza

Araua: 50/2008 Dekretua, martxoaren 18koa, euskal etxeentzako dirulaguntzen erregimena arautzen duena; eta 186/2021 Dekretua, uztailaren 27koa, euskal etxeei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duen dekretua bigarren aldiz aldatzen duena (indarrean dagoen dirulaguntzen araudiaren erreferentziak eguneratzea eta ordaintzeko modua jardueraren bideragarritasunera egokitzea, ordainketa-kopurua bira murriztuz)

Helburua: Kanpoan den euskal komunitatea indartzea

Jarduera: Kanpoan den euskal komunitatea sendotzea euskal etheen bidez

Adierazlea: Euskal etxeak murgilduta dauden gizarteetan jarduerak sustatzeko laguntza kopurua: 300

Prozedura: Norgehiagoka-prozedura

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza

Helburu duten sektorea: Euskal gizataldeak

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA
5. ARDATZA: EUSKAL KOMUNITATE GLOBALA ERAIKITZEA
5.1 HELBURU ESTRATEGIKOA.- Euskaldunen atzerriko presentzia historikoa sendotzea

ILDOA: 5.1.1.- Euskal etheen eta euskal gizataldeen sarea sustatzea eta babestea

Jarduera: B) Euskal etheen jarduerari eta azpiegiturari laguntzea

Adierazlea: Lagundutako euskal etheen jarduera kopurua (adierazlee orokorra, Planaren indarraldi osoan lagundutako jarduera kopurua: 3.500)

1.5.- GAZTEMUNDU PROGRAMA

AURREKONTUA: 25 01 1311 23 452 19/3313; 4. kapitulua; **2025:** 100.000 € / FINANTZAZIOA: % 100 Eusko Jaurlaritza

Araua: 170/2023 Dekretua, azaroaren 14koa, Gaztemundu programa arautzen duena

Helburua: Egungo Euskadiren ezagutzan sakontzea, Euskadin lan egiten duten eta bizi diren erakunde, instituzio, enpresa eta pertonekin harremanetan jarriz eta Euskadin eta Euskaditik kanpo bizi diren euskal gazteen arteko harremanetarako plataformak suspertzea, gazte horiek euskal etxeetan duten presentzia aktibatuz

Jarduera: Diasporatik datozen gazteen heziketa-zikloak Euskadin antolatzea eta laguntzea

Adierazlea: Aukeratutako pertsona kopurua: 15

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren / Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza

Helburu duten sektorea: Baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak: EAetik kanpo biziak, euskal etxe baten kidea izatea, 18 eta 35 urte bitartean edukitzea eta deialdian proposatutako gaiei buruzko azterlan edo ikerketa bat egin izana

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA
5. ARDATZA: EUSKAL KOMUNITATE GLOBALA ERAIKITZEA
5.1 HELBURU ESTRATEGIKOA.- Euskaldunen atzerriko presentzia historikoa sendotzea

ILDOA: 5.1.1.- Euskal etheen eta euskal gizataldeen sarea sustatzea eta babestea

Jarduera: A) Euskal etxeekin ekitaldiak eta jarduerak antolatzea

Adierazlea: Gaztemundu programan parte hartu duten pertsona kopurua, planaren indarraldi osoan: 75 (adierazle hori euskal etxeekin sustatutako programetan guztira parte hartu duten pertsona kopuruaren -1.100 pertsona- barruan dago)


1.6.- KANPOKO BAZKIDE ESTRATEGIKOEN SAREKO ESKUALDEEKIN LANKIDETZA TEKNIKOKO PROIEKTUENTZAKO DIRULAGUNTZAK (EUROPAKO ESPARRUA)

AURREKONTUA: 25 01.1311.22.452.22/0376; **2025:** 50.000 €; Konpromiso-kreditua **2026:** 50.000 € / FINANTZAZIOA %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: 47/2019 Dekretua, martxoaren 26koa, Kanpoko Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekin lankidetzaren tekniko proiektuetarako laguntzak ematea arautzen duena

Helburua: Euskal interesak sustatzea

Jarduera: Aliantza estrategikoak garatzea eta finkatzea; eta, horretarako, eskualde estrategikoetako erakundeekin alde biko lankidetzaren proiektuak finantzatzea, besteak beste, honako arlo hauetan: merkataritza; inbertsioetan eta negozio-aukeretan; I+G+b-n; politika industrialean; politika fiskalean; mugikortasunean eta garraioan; lan-merkatuan eta politika ekonomikokoan; ingurumenean eta energian; nekazaritza eta elikaduran; osasunean; hezkuntzan eta lanbide-heziketan; kulturaren; turismoan; eta poliziarekiko lankidetzan.

Adierazlea: Lagundutako proiektu kopurua: **8**

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia

Helburu duen sektorea: Egoitza EAEn duten erakunde juridiko pribatuak, kanpoko eskualde estrategikoetako erakundeekin egiten diren alde biko jarduketaren eta lankidetzaren proiektuak dituztenak

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA
3. ARDATZA- EUROPAKO PROIEKTUEN LAGUNTZEA ETA PARTE HARTZEA
1.7.- KANPOKO BAZKIDE ESTRATEGIKOEN SAREKO ESKUALDEEKIN LANKIDETZA TEKNIKOKO PROIEKTUENTZAKO DIRULAGUNTZAK (EUROPAKO EZ DEN ESPARRUA)

AURREKONTUA: 25 01.131121452 22/0376/; 4. kapitulua; **2025:** 80.000 €; konpromiso-kreditua **2026:** 80.000 € / FINANTZAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: 47/2019 Dekretua, martxoaren 26koa, Kanpoko Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekin lankidetzaren tekniko proiektuetarako laguntzak ematea arautzen duena

Helburua: Munduan euskal interesak sustatzea

Jarduera: Aliantza estrategikoak garatzea eta finkatzea, eta, horretarako, eskualde estrategikoetako erakundeekin alde biko lankidetzaren proiektuak finantzatzea, besteak beste, honako arlo hauetan: merkataritza; inbertsioetan eta negozio-aukeretan; I+G+b-n; politika industrialean; politika fiskalean; mugikortasunean eta garraioan; lan-merkatuan eta politika ekonomikokoan; ingurumenean eta energian; nekazaritza eta elikaduran; osasunean; hezkuntzan eta lanbide-heziketan; kulturaren; turismoan; eta poliziarekiko lankidetzan. Deialdi batean edo gehiagotan gauzatu ahal izango da.

Adierazlea: Lagundutako proiektu kopurua: **16**

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia

Helburu duen sektorea: Egoitza EAEn duten eta kanpoko eskualde estrategikoetako erakundeekin egiten diren alde biko jarduketaren eta lankidetzaren proiektuak dituzten erakunde juridiko pribatuak

2025 KANPO HARREMANETARAKO PLANA
2. ARDATZA- EHUN SOZIOEKONOMIKOAREN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEA
2.1. HELBURU ESTRATEGIKOA- Erakunde-harremanak indartzea, eta bazkideekiko lanean eta nazioarteko aliantzetan sakontzea

Ekintza ildoak: 2.1.1 Bazkide estrategikoekin aliantzak ehuntzea eta sendotzea

Jarduera: C) Euskal eragileen eta bazkide estrategikoen sareko haien homologoen arteko lankidetzaren proiektuak bultzatzea

Adierazlea: Planaren indarraldian diruz lagundutako proiektu kopurua: **60**



KOMUNIKAZIO ETA BERRIKUNTZA SOZIALAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

1.- KOMUNIKAZIO ETA BERRIKUNTZA SOZIALAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK, 2025-2028 EKINTZA PLANAREKIN LOTUTA, BERRIKUNTZA SOZIALAREN ETA 2030 AGENDAREN PLANAREN BARRUAN

1.1.- 2030 AGENDA ETA TRANTSIZIO SOZIALAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA-BEKAK

AURREKONTUA: 01 1122 34 451 21/0428

4. kapitulua; **2025:** 40.000 €; / FINANTZAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: 34/2023 Dekretua, martxoaren 21ekoa, unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuan prestatzeko beken programa sortu eta arautzen duena

Helburua: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa 2030 Agendaren arloan

Jarduera: Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloko prestakuntza-bekak

Adierazleak: Esleitutako beka kopurua: 2

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren Idazkaritza Nagusia / Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: 30 urtetik beherako gazteak

2025-2028 JARDUERA PLANA

HELBURU ESTRATEGIKOA Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren 2025-2028 Plana

EKINTZA ILDOA: 2. ardatza: Garapen jasangarrirako helburuak lortzea 2030 Agendaren bidez

Jarduera: Gazteak Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan prestatzea eta gaitzea

Adierazlea: Esleitutako beka kopurua: 2

1.2.- 2030 AGENDA BONUEN PROGRAMA

AURREKONTUA: 01 1122 34 452 21/0430

4. kapitulua; **2025:** 650.000 €. / FINANTZAZIOA: %100 Eusko Jaurlaritza

Araua: 23/2022 Dekretua, otsailaren 15ekoa, 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzak arautzen dituena

Helburua: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa 2030 Agendaren arloan

Jarduera: 2030 Agenda ezartzeko dibulgazio- eta/edo prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea

Adierazlea: Diruz lagundutako proiektu kopurua: 150

Prozedura: Lehiaketa bidezko prozedura

Organoa: Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren Idazkaritza Nagusia / Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza

Helburu duen sektorea: EAEko elkarten edo fundazioen erregistroan inskribatuta dauden eta jarduera-eremua EAEn duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2025-2028 JARDUERA PLANA

HELBURU ESTRATEGIKOA Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren 2025-2028 Plana

EKINTZA ILDOA: 2. ardatza: Garapen jasangarrirako helburuak lortzea 2030 Agendaren bidez

Jarduera: 2030 Agenda Bonuen Programa, dibulgazio- eta/edo prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea

Adierazlea: Diruz lagundutako proiektu kopurua: 150